

‘Parallax’ edo hitzontzikeriaren garaipena



1893an Orlando Fergusonek Lurreko mapa hau marraztu zuen, *Parallax* hitzontziaren teoria zentzugabeetan oinarrituta. Egun AEBetako Kongresuko liburutegian dago ikusgai.

INGALATERRA, 1849. Samuel Birley Rowbotham (1816–1884) asmatzaile eta idazleak *Zetetic Astronomy: Earth Not a Globe* (Astronomia Zetetikoa: Lurra ez da globoa) izenburuko lana argitaratu zuen *Parallax* izenordez. Hasieran hamasei orrialdeko panfletoa besterik ez zena 200 orrialdera iritsi zen hamabost urte geroago, eta 1881eko azken bertsioak 430 orrialde ditu. Izenburuak dioen moduan, Rowbotham, berak asmatutako metodo erabiliz –astronomia zetetikoa–, Lurra laua zela ondorioztatu zuen.

Parallax-en arabera, kontinenteek ozeanoan flotatzen dute, ozeanoa elurrezko eta izotzezko basamortu batek inguratzen du eta desertu izotzuaren atzean labar eskergetan amaitzen da Lurra. Lurrazalaren azpiko suari esker existitzen dira kontinenteak eta ozeano urtua. Baina su hori ez da nahikoa, nonbait, Lurraren erdian dagoen Ipar Poloaren inguruko izotzak urtzeko.

Beti ere haren teoriari jarraiki, Eguzkia, Ilargia eta izarrak guregandik kilometro gutxira daude. Eguzkiak Ipar Poloaren inguruan egiten du bira, beti abiadura berdinean eta Ilargiak, lanpara bailitzan, berezko dirdira du eta erdi gardena da. Eta eklipseak? Eklipseek, Rowbothamen arabera, bazuten azalpena; kontua zen berak oraindik ez zuela aurkitu. Eta bestela, Bibliara ere jo zezakeen bere teoretarako. Finean, Bibliak azaltzen zuen Lurraren osara: goian zerua eta behean Infernuko sua. Orduan, Infernuko suak ozeanoa urtu eta lehorreko bizitza ahalbidetu badu, ez da hain txarra izango... *Parallax*-en

teoriek, jakina, ez zuten ez bururik ez buztanik, eta ordurako Lurra esferikoa dela aspaldi egiaztatuta zegoen. Baina Rowbotham ez zuen hori traba izan hogeitaz urtez ia Ingalaterra osoa ibiltzeko bere teoriak eztabaida publikoetan defendatzen. Eta eztabaida gehienak irabazten zituen, gainera.

1864ko egun batez Plymoutheko hondartzan agertu zen, Richard Proctor astronomoak jotako desafioari erantzunez. *Parallax*-en aurkariek zioten hondartzan ipinitako teleskopioetik hamalau miliara dagoen Eddystone itsasargiaren linterna soilik ikusiko zela, nahiz eta apur bat gorago dagoen muinotik itsasargi osoa ikusten den. Baina egun hartan linterna erdia besterik ez zen ikusten, airearen errefrakzioa ohi baino txikiagoa zelako. Edonola argi zegoen lurrazala ez dela laua, baina *Parallax*-ek sutsu aldarrikatu zuen espero zenarekiko desberdintasun hura bere aurkariek ziotenaren kontrako froga zela. Bertaratutako asko konbentzitu zituen.

Erretorikan trebea zen *Parallax*, baina aurkarien gaitetik gailentzen zen ahots ozena zuen aliatu nagusi. Sinesteko gogoz zegoen publikoa ere bai. Egun hain ohikoa den hitzontzi ozenen arrakasta ez zen haren oinordetzan utzitako gauza bakarria izan. *Flat Earth Society* (Lur Lauaren Elkarte) sortu zuen hil baino lehen; zientziaren aurkako korronteen haztegi ezin hobea den AEBetan elkarte bizirik dago oraindik, eta milaka jarraitzaile ditu. ■



Arrastoak

Duela 1.300 urteko aztikeria egiptoarrak

KOPTOZ IDATZITAKO 1.300 urteko egiptoar eskuizkribua erosi zuen Australiako Macquarie unibertsitateak 1981ean, eta berriki bertako nahiz Sydneyko Unibertsitateko ikerlariek hogeitaz orrialdeko liburuxkak dioena dezifratu dute.

Botere Erritualeko Egiptoar Gidaliburu bataiatu duten pergaminoak 27 sorginkeria, hainbat babes-erregu eta irudi mordoa biltzen ditu. Norbait maitemintzeko edo mendean hartzeko, negoziotan arrakasta izateko, espiritu gaiztoak uxatzeko eta zenbait gaixotasun sendatzeko konjuruak topa daitezke bertan, nahiko errazak gainera, eragina izango dutela bermatu ez arren.

Larumin beltza sendatzeko nahikoa omen da kumino beltza, piperminex eta ardoz egindako nahasketa edatea. Norbait mendean hartzeko, zailena biktimaren atzazalak lortzea da; atzazalak eskuratuta, ateburuaren alde banatan ipintzea nahikoa da. Eta norbaitengan desioa pizteko ere balio du ardoak, edan bitartean esaldi jakin bat botaz gero behintzat. ■



EFFY ALEXAKIS / MACQUARIE UNIVERSITY

Duela 1.300 urteko eskuizkribu egiptoarraren hogeitaz orrialdeetako bat.